

OSAKIDETZA BILBO ESKUALDEA-COMARCA BILBAO -.**Bi**E.-



INGURUMENARI BURUZKO ADIERAZPENA -2008-

AURKIBIDEA

- 1 AURKEZPENA
 - 1.1 Sarrera
 - 1.2 Zuzendaritzaren aurkezpena
 - 1.3 Bilbo Eskualdea -Comarca Bilbaoren (BiE) deskribapena
 - 1.3.1 Erakundearen egitura
 - 1.3.2 Ingurumen kudeaketarako oinarritzko erantzukizunak
 - 1.4 Emandako Zerbitzuaren deskribapena
 - 1.5 LMAU baten eta Eskualdeko Zuzendaritzaren deskribapen orokorra
 - 1.6 Ingurumen-kudeaketaren Sistemaren irizpena (IKS)
- 2 INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN DESKRIBAPENA
 - 2.1 Ingurumenerako Politika
 - 2.2 Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren aurkezpena
- 3 INGURUMEN ALDERDIAK
 - 3.1 Ingurumen-alderdien identifikazioa
 - 3.2 Ebaluazio-irizpideak
 - 3.3 Ingurumen-alderdi garrantzitsuak
- 4 XEDEAK ETA HELBURUAK. INGURUMEN KUDEAKETAKO PROGRAMAK
- 5 INGURUMENAREN GAINEKO JOKABIDEA
 - 5.1 Ingurumen-alderdien kudeaketa
 - 5.2 Ingurumenari buruzko legediarekiko betetze-maila
- 6 INGURUMENARI BURUZKO BESTELAKO INFORMAZIO INTERESGARRIA
 - 6.1 Erakundearen beste eremu batzuetan ingurumenarekiko jokabidea
 - 6.2 Herritarrentzako komunikazioa eta informazioa
 - 6.3 Hornitzaileek ingurumenarekiko daukaten jokabidea
 - 6.4 Ingurumen-kudeaketarako inbertsioak
 - 6.5 Ingurumenari lotutako gertaerak
 - 6.6 2009ko erronkak
- 7 EGIAZTATZEA ETA BALIOZTATZEA

ERANSKINAK BiE osatzen duten osasun zentroetako datuak

1 AURKEZPENA

1.1 SARRERA

Adierazpen honen xedea da Bilbo herritarrei eta interesa daukatenei Eskualdeko (BiE) ingurumen-alderdiei buruzko informazioa ematea, erakundearen jardueraren ondoriozko eraginei buruzkoa nahiz ingurumen-eraginak gutxitzeko eta kutsadura prebenitzeko egiten den ingurumen-kudeaketari buruzkoa ere.

2006ko hasieran, BiEk Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren (IKS) ezarpena bultzatzea erabaki zuen zenbait Lehen Mailako Arretako Unitatetan (LMAU), horien garapen iraunkorra bultzatzeko. 7 LMAUk Ekoscan araua ezartzeari ekin zioten, eta ondoren zuzendaritzak egoki iritzi zion kudeaketa sistema bat ezartzeari UNE-EN ISO 14001:2004 arauaren arabera eskualde osoan; sistema horrek Eskualdeko Zuzendaritzaren eta berorren LMAU guztietan ingurumen-kudeaketan etengabe hobetzea bermatzen du.

Kudeaketa Sistema ezarri eta finkatu ondoren, aldi berean Europako Ekogestioaren eta Eko-auditoriaren 761/2001 EMAS II araudiari egokitzea erabaki zen, zeren Eskualdearen Ingurumen-kudeaketan aurrerapentzat jo baitzen. Era horretan, gainera, herritarren komunikazioari eta partaidetzari garrantzi handiagoa emanez. Ziurtapen biak 2008ko uztailan lortu ziren.

Bigarren adierazpen honek komunikazioaren eta kudeaketaren gardentasuna bilatzen du. Herritarrei oro har eta interesa daukatenei Osakidetzako Bilbo Eskualdeak - BiE ingurumenaren gaineko jokabideari lotuta dauzkan konpromisoak, helburuak eta eboluzioa ezagutarazteko. Eranskinetan BiE osatzen duten zentroetako bakoitzak daukan ingurumenarekiko jokabidea deskribatzen da

1.2 ZUZENDARITZAREN AURKEZPENA

Ingurumen-kudeaketa BiEren ekarpen aktiboa eta borondatezkoa da, lehian duen egoera eta balio erantsia hobetzeko.

Ingurumenari buruzko kontzeptu horretan, ekonomiaren eta ingurumenaren arteko oreka berria lortu nahi duten jardunen, estrategien eta enpresako kudeaketa-sistemen multzoa biltzen da.

Aurkezpen honek Osakidetzaren Bilbo Eskualdeko (BiE) osasun zerbitzu publikoen erakundeak 2008an bereziki buruturiko jarduerak eta konpromisoak dokumentu publiko batean sistematizatzea dakar berekin (851 CNAE kodea). Horri esker, gure ibilbidea erakutsi eta eginiko jarduerari buruzko ikuspegi orokorragoa eman dezakegu.

Gure II. Plan Estrategikoan 2008-2011, Erantzukizun Sozial Korporatiboaren aldeko apustua egiten da ingurumen eta gizarte-eragineko alderdietan.


1.3 BILBO ESKUALDEA-BILBO ESKUALDEAREN DESKRIBAPENA: BiE

Bilbo Eskualdea-Comarca Bilbaok (BiE) 1989an ekin zion bere bideari Osakidetzaren baitan. Hasiera batean bai Lehen Mailako Arretako zerbitzuak bai Anbulatorioko Arreta Espezializatukoak biltzen zituen.


Bilbo Eskualdea ez zen 1997ra arte egun bere erreferentziazko ospitalearen, Basurtuko Ospitalearen, baitako bilakatu. Momentu horretan Osakidetzan, Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoaren barruan, Lehen Mailako Arretako Erakundea bilakatu ginen.

1.3.1.- ERAKUNDEAREN EGITURA.-

Guztira 24 lantoki dauzkagu, 23 osasun zentrotan banatuta dauden Oinarrizko Laguntzako 20 unitatetan egituratuta. Hauxe da ordutegia: 8:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostiralera, eta larunbatetan 9:00etatik 14:00etara. Horietako hiru, Errekalde, Deustua eta Begoñako osasun etxeak hain zuen Etengabeko Atentzio Guneak ere badira. Bestalde, Bilboko Kale Nagusiko 62an Eskualdeko Zuzendaritzaren egoitza dago.




Eskualde osorako zuzendaritza-egitura eta egitura teknikoa dauzkagu. Laguntzako egitura gisa, zuzendaritzetan dauden profesionalen gain, honakoak dauzkagu: Prebentzioko Oinarrizko Unitatea, Eskolako Osasun Zerbitzua, gizarte langile 2 eta Bezeroaren Arretarako 4 zerbitzu, azken horiek osasun zentrotan daude (anbulatorioetan) non Lehen Mailako Arreta eta Arreta Espezializatua konpartitzen diren.



Zuzendari gerentea da Erakundearen arduradun nagusia, eta hala delako, gizarte, ekonomia eta ingurumeneko gure eremuarekin lotutako gai guztiak zuzentzen ditu, baina gainerako liderrei eskuordetu dizkie jardueren plangintza eta hedapena.

1.3.2.- INGURUMEN KUDEAKETAKO OINARRIZKO ERANTZUKIZUNAK

Ingurumena Kudeatzeko Sistema BiEn ezartzeko, giza baliabideak eta erantzukizun zehatzak esleitu behar izan dira sistemak behar bezala funtzionatuko duela bermatzeko, **IKS**ren ondoko organigraman agertzen denez:



Hauexek dira harremanetarako datuak, non **BiEn** ingurumenari buruzko adierazpena jendaurrean jartzen den:

Kale Nagusia, 62 2.a 48011 - Bilbo
Telefonoa: 94 400 73 00
Faxa: 94 400 73 77
e-maila: andres.villarpizarro@osakidetza.net
Harremanetarako: Andrés Villar Pizarro

1.4 EMANDAKO ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Bilbon eta Alonsotegin bizi diren herritar guztiei eskaintzen diegu zerbitzua, gure 20 LMAUen bidez, eta Etengabeko Arretako Guneekin osatzen da halako moldez non herritarrek etengabe baitute osasun zerbitzua asteko 7 egunetako 24 orduetan: Gure bezeroei ematen dizkiegun osasun zerbitzuak Zerbitzu-Zorroan jasotzen dira:

OSASUN ZERBITZUEN ZORROA:

1. Oinarrizko prozedura diagnostikoak
2. Lehen Mailako Arretatik eskuragarri diren prozedura diagnostikoak
3. Prozedura terapeutikoak
4. Prebentzioa, osasunaren sustapena, familia- eta komunitate-atentzioa
5. Informazioa, Zaintza Epidemiologikoa
6. Arreta Berezitua Arrisku Talde Berezituei: haurrak, nerabeak, emakumeak, helduak, adinekoak, etxeko indarkeria eta tratu txarrak adin-tarte guztietan, gaixo terminaleri zainketa aringarriak
7. Adimen-osasunari arreta
8. Ahoko eta hortzetako osasunari arreta

Zerbitzu-zorro hori urtero berrikusi, berretsi, hobetu edo berritzen da. Adibidez, paziente antikoagulatua (TAO) kontrolatzeko prozesua, begiaren hondoa kontrolatzekoa (erretinografia) edo Kirurgia Txikia ezartzea. Gainera, Bezeroak Atenditzeko unitateetako zerbitzu-zorroa gehitu dugu, honako gestio hauek biltzen dituen: bezeroen alta eta hitzordua ematea, aldi baterako ezintasuneko berrespen-partreak, tratamendu luzeko errezetak edo administrazio-izapideak hala nola Osasun Sailaren dokumentuak ikus-onestea eskuordeturiko jarduera gisa...

Gure **Prozesu-Mapan** identifikaturiko prozesuen bidez hedatzen da gure jardura, eta horien artean dago ingurumen-kudeaketa ere. Jabea da helburuak lortzeko beharrezko ekintza guztiak egiteko ardura daukana.



Hasieran esan denez, 1997az geroztik, **BiE soilik Lehen Mailako Arreta Zerbitzuak** eskaintzen dituen erakundea da. Hala ere, hori ez da eragozpena (are gehiago, mesedegarria da) laguntza espezializatuarekin batera jarduteko arlo ugari ezartzeko; izan ere, askotan partekatzen ditugu eraikinak laguntza espezializatuarekin. Basurtuko Ospitalea, Santa Marina Ospitalea, Bizkaiko Ospitalea Kanpoko Osasun Mentala eta Banku Hemoterapikoa nagusiki. Guneak batera erabiltzen ditugu: herritarrei arreta integrala, paziente antikoagulatua kontrolatzeko prozesua (TAO), Kirurgia Txikia, ospitaleko alta-zaintzen jarraipena, etengabeko arreta, proba diagnostikoak eskuratzea, etab.

1.5 LMAU BATEN ETA ESKUALDEKO ZUZENDARITZAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Eskualdeko jarduera nagusia Lehen Mailako Arreta-unitateetan eta beroien zentroetan egiten da. LMAU ereduan honako profildun profesionalak egiten dute lan:

- Familia-medikuntza
- Pediatria
- Erizaintza
- Administrazio-arreta

Beste honakoak ere egon daitezke:

- Odontologia
- Emagina

Zerbitzuak emateko bere baitan honakoak biltzen dituzten lokalak behar dituzte:

• Asistentzia-arloa	Arreta-kontsultak: Medikuntza eta erizaintza.
	Sendaketa-gelak/Proba funtzionalak
	Talde-hezkuntzako gela
• Publikoaren arloa	Sarrera
	Itxarongela
	Eskailerak eta igogailuak (hala badagokie)
	Komunak.
• Administrazio arloa	Bezeroaren arretarako erakusmahia
	Telefono bidezko eta administrazio-arreta.
• Zerbitzu orokorrak eta guztientzakoak	Biltegia
	Historia Klinikoen artxiboa.
	Liburutegia/ Egongela
	Pertsonalaren komunak eta aldagelak
	Zerbitzu-gelak: garbiketa, hondakinak, etab.

Kontsultako edo sendaketa-gelako oinarritzko tresneriarekin batera, honako ekipo hauek daude zentro batean:

- **Elektrokardiografoa**
- **Autoklabea**
- **Holterra**
- **Espirometroa**
- **Pulsioximetra**
- **Desfibriladorea**


Eskualdeko Zuzendaritzan unitateak eta zentroak laguntzeko zerbitzua ematen da.

LANPOSTU-ZERREDA URTEA	2006	2007	2008
FAMILIA ETA KUPO MEDIKUAK	207	208	236
PEDIATRIA	37	40	43
ODONTOLOGIA	9	9	8
EUD- EMAGINAK	260	260	280
ERIZAIN LAGUNTZAILEA	32	31	30
GIZARTE LAGUNTZAILEAK	2	2	2
GOI-MAILAKO TITULATU EZ SANITARIOAK	9	9	11
ERDI-MAILAKO TITULATU EZ SANITARIOAK	1	1	1
ADMINISTRARIAK	19	18	19
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAK BEZ. ARRE.	124	123	139
ZELARIAK	54	52	59
GIDARIAK	11	11	11
GARBIKETA + MANTENTZEA	5	4	4
ZUZENDARITZAKO PERTS.	5	5	5
	775	773	848

* Eranskinetan nola banatzen diren zentroetan jasotzen da.

1.6 INGURUMEN-KUDEAKETAREN SISTEMAREN IRISPENA

BiEren LMAU guztietan ematen den ingurumen-kudeaketa da sistema honen irispena, **soilik Lehen Mailako Arretako** (administrazio kudeaketa eta osasun laguntza) zerbitzuak emateari eta Eskualdeko Zuzendaritzan ematen denari dagokionez.



Hauexek dira kokaguneak:

LEHEN MAILAKO ARRETA UNITATEAK (LMAUak)	ERANSKINAK agiriak zentroetako datuak	ZENTROAK	Helbidea	OTI kopurua: ***			****Bezeroen hitzorduak
				31.12..06	31.12..07	31.12.08	31.12.08
1.- BASURTU - ALTAMIRA	01	BASURTU OZ	Iparralde (Lorategia),1 - 48013	17.323	17.486	18.344	145.041
	02	ALTAMIRA OZ	Altamira, 11 - 48013	4.701	4.565	3.840	42.819
2.-BEGOÑA	03	**BEGOÑA OZ	Begoñako Andra Mari, 32 - 48006	13.511	13.647	13.595	115.173
3.-BOLUETA - SAGARMINAGA	04	SAGARMINAGA OZ	Sagarminaga, 56 - 48004	14.058	14.064	14.085	127.633
4.- ZAZPI KALEAK	05	**ZAZPI KALEAK OZ	Erronda, 6 - 48006	11848	12.039	12.384	102.624
5.- DEUSTU - ARANGOITI	06	* DEUSTU OZ	Power Luis kalea, 18 - 48014	23.189	23.372	23.499	193.572
	07	ARANGOITI OZ	Berrizbidea, 50 - 48014	5.059	5.059	5.103	45.687
6.- EL KARMELO	08	EL KARMELO OZ	Haro Plaza, 2 - 48004	15.552	15.446	15.464	146.208
7.-ETXANIZ SUILTZAILEA	09	** ETXANIZ OZ	Etxaniz Suhiltzailearen Plaza, 1 - 48010	38.408	38.975	39.648	285.546
8.- GAZTELEKU	10	GAZTELEKU OZ	Vianako Printzearen kalea, 5 - 48007	24.803	24.706	23.380	209.717
9.- INDAUTXU	11	* INDAUTXU OZ	Areiltza Doktorea, 12 - 48011	22.133	22.046	22.155	161.126
10.-J. SAENZ DE BURUAGA	12	** J.S. BURUAGA OZ	Henao, 7-9 - 48009	15.184	15.453	15.704	96.539
11.- MESEDEETAKOA	13	MESEDEETAKO OZ	Iruarizaga Luis kalea, 1 - 48003	9.234	9.681	10.221	85.976
12.- ABUSU	14	ABUSU OZ	Ibaialde z/g - 48003	10.832	10.902	11.069	107.727
13.- OTXARKOAGA	15	** OTXARKOAGA OZ	Zizeruene, 1 - 48004	13.271	13.133	13.166	165.306
14.- ERREKALDE	16	* ERREKALDE OZ	Larraskitubidea, 2 - 48002	28.689	28.934	29.319	287.372
15.- SAN ADRIAN	17	SAN ADRIAN OZ	De Garay Juan kalea, 51-53 - 48003	14.048	14.929	15.731	137.133
16.- SAN INAZIO	18	SAN INAZIO OZ	Larrakotorre kalea, 9,- 48015	27.650	27.545	27.507	263.243
17.- SANTUTXU - SOLOKOETXE	19	* SANTUTXU- SOLOKOETXE OZ	Sorkunde, 3 - 48006	24.575	24.750	24.915	237.054
18.- TXURDINAGA	20	TXURDINAGA OZ	Garat Txomin etorbidea, 16 - 48004	16.796	16.852	16.785	149.236
19.- ZORROTZA - ALONSOTEGI	21	ZORROTZA OZ	Zorrotza-Kastrexana 20-22 Atzealdekoa- 48013	13.024	12.982	13.031	142.493
	22	ALONSOTEGI OZ	Errotetabidea, z/g - 48810	3.146	3.140	3.172	32.684
20. ZURBARAN	23	ZURBARAN OZ	Zumalacarregui Etorbidea,99 - 48007	11.533	11.095	12.196	101.081
GUZTIRA		23		378.537	380.801	384.313	3.381.040
ESKUALDEKO ZUZENDARITZA	24	+1	Kale Nagusia, 62 - 48011	***42 eskualdeko administrazioako lanpostu-zerrenda			

* Anbulatorioetan kokatutako zentroak.

** Arreta espezializatuko zerbitzua daukaten osasun zentroak.

*** Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailetik eratorritako datuak

OHARRA: Udal-zentsuetako herritar bakoitzeko OTI kopurua handiagoa zenbait pertsonaren jokabideagatik da gehienbat; izan ere, beste udalerri batzuetan erroldatuta egon arren, bere medikuari eusten dioten gure eskualdean.

****Bezeroen hitzorduak + eskualdeko lanpostu-zerrenda: adierazleak kalkulatzeko baliatutako datua

2. INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN DESKRIBAPENA:



2.1 INGURUMENERAKO POLITIKA

BiEko zuzendari gerenteak eta ingurumeneko arduradunak politika hori zuzentzen eta zehazten dute erakunde osoan ezar dadin, eta **Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren (IKS) helburuak** ezartzeko erreferentzia da.

Helburu horiek **BiE**ren ildo estrategikoetan finkatzen dira, malguak eta berrikusgarriak dira eta ingurunearen eskakizunetara irekita daude. Gainera, ingurumenaren arloko unean uneko lehentasunak ezartzen dituzte.

Zuzendaritzak balekotozat jo du 2007ko Ingurumenaren adierazpena, honakoa dioena:

Lehentasunak abiarazteko, zuzendari gerenteak eta ingurumeneko arduradunak honakoak betetzeko konpromisoa hartzen dute:

- Politikaren esanahia **komunikatzea**, pertsonal guztiak ulertu eta eraginkortasunez bete dezan.
- Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat **zehaztea eta abiaraztea**, Ingurumenaren Kudeaketaren Eskuliburuan jasota dagoena.
- Giza baliabideak eta **baliabide** materialak ezarritako eskakizunak betetzera **bideratzea eta bezeroen eta interesa daukaten alderdiak ingurumenaz jabearaztea eta gogobetetasuna sustatzea**.
- Ez-adostasunak gutxitzeko nahikoa baliabide esleitzea.
- **Langile guztien informazioa eta partaidetza bermatzea** gure jarduerak ingurumenean duen eraginaz jabetu daitezen, betiere **kutsadura prebenitzeko** eta baliabide naturalen aurrezpena sustatzeko guztiok daukagun konpromisoa ahaztu barik; bereziki baliabide natural urriei erreparatuko diegu.
- Beharrezko aginpidea eskuordetzea prozesuen arduradunei, **sistema arauaren arabera mantentzen dela ziurtatzeko**, eta sistemaren funtzionamenduaren berri eman beharko zaio nahitaez zuzendari gerenteari **etengabeko hobekuntza** gisa.
- **Ingurumenerako politika interesa daukaten alderdien eskura jartzea**.
- Indarreko **arauak eta legeria betetzen direla** bermatzea, baita erakundeak hitzartzen duen beste edozein konpromiso ere.

Ingurumena kudeatzeko taldeak ezarritako politika dokumentatu, abiarazi eta egunean izango du, gure jardueren garapenari egokitu ahal izateko.

BiEko profesional guztion erantzukizuna da ingurumenerako politika hau nahitaez betetzea.

Bilbon, 2007ko urriaren 22an

JESÚS LARRAÑAGA GARITANO
BILBO ESKUALDEA -COMARCA BILBAO
ZUZENDARI GERENTEA




Ingurumenari buruzko adierazpen honen informazioa bermatzeko, kartelak jarriko dira zentro guztietan, pertsonalaren, herritarren eta kontraten eskura.

2.2.- INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN AURKEZPENA:

BiEk **IKS** ezarri du UNE-EN ISO 14001:2004 arauaren arauetan eta Europako 761/2001 (EMAS)-enean oinarrituta. Bertan xedatu dira **Ingurumena Kudeatzeko Eskuliburua** eta ingurumen-alderdiak **Etengabeko Hobekuntzaren** zikloan behar bezala identifikatzen eta kudeatzen direla bermatzeko beharrezko prozedura eta jarraibide teknikoak, ondoren agertzen denez.



KUDEAKETA INTEGRATURAKO MAPA



3. INGURUMEN ALDERDIAK

BiEren kudeaketaren **ingurumen-alderdiak** LMAUetan garatzen diren jardura eta zerbitzuetatik eratortzen diren elementuak dira, ingurumenarekiko elkarreragina izan dezaketenak. Erakundeak alderdi horiek identifikatu ditu “IKS-KP-12 ingurumen-alderdien identifikazioa” izeneko prozeduraren bitartez, haren eboluzioa kontrolatzeko eta ingurumen-politika egiaztatzeko.

Honakoak izan daitezke:

- o **Zuzenekoak.**- Jardueren ondorioz sortutakoak dira eta kudeaketaren kontrola dago horien gain. Honelaxe identifikatu daitezke:

- o **Ohiko baldintzak.**- BiEko ohiko jarduera.
- o **Ezohiko baldintzak.**- Jarduera edo zeregin puntualak.
- o **Larrialdiak.**- Gerta daitezkeen egoerak eta kasuan kasuko balizko alderdiak aurreikusi behar dira.
- o **Zeharkakoak.**- Jardueren ondorioz sortzen direnak dira, baina BiE ez du kudeaketako kontrol osoa horien gain.

3.1 INGURUMEN-ALDERDIEN IDENTIFIKAZIOA

IKSren arduradunak ingurumenaren zuzeneko eta zeharkako alderdiak identifikatuko ditu. Identifikazio hori LMAUetan ematen diren jardueren eta zerbitzuen analisisan oinarritzen da.

Erakundearen jarduerak abiapuntutzat hartuta, ingurumen-alderdiak identifikatzeko, erakundearen funtzionamenduaren ohiko baldintzak nahiz ohiz kanpokoak baita balizko larrialdiak ere hartu dira kontuan. Zentzu horretan, BiEren zerbitzu-zorroa eta prozesuak hartu dira aintzat (1.4. atala). Hauexek dira erakundearen identifikatutako ingurumen-alderdiak:

Zuzeneko alderdiak ohiko egoeretan:

Alderdi-mota		Ingurumen-alderdia
Kontsumoak	A. administratiboak	Orriak
		Tonerra (1)
		Pilak y bateriak
		Inprimagailuko kartutxoak
	A. sanitarioak	Botikak
		Aposituak
		Tirak
		Orratzak, xiringak eta hodiak
		Bendak eta gazak
		Beste material sanitario batzuk
		Bestelako materiala
	Larrialdi egoerak	Gai arriskutsuak (Instrunet)
	Sareko ura	Sareko ura
Energia	Energia elektrikoa	
	Galdarako gasa	
	Galdaretako gasolioa	
	Automozioiko gasolioa	
Hondakinak	Arriskutsuak	RAEE (inprimagailuak, ordenagailuak, etab...)
		Pilak eta bateriak
		Ebakitzailea keta zorrotzak
		Lanpara fluoreszenteak
		Zitostatikoak
		Iraungitako botikak
	Ez arriskutsuak	Garbiketa-ontzi arriskutsuak
		Erradiografiak
		Tinta eta toner kartutxoak
		Papera eta kartoia
Isurketak	Zarata	Hondakin higienikoak (komunak)
		Bereizi gabeko hiri-hondakinak
		Ur sanitarioak
Igorpenak		Bulegoetako zarata
		Elektrizitate igorpenak
		Galdarako igorpenak
		Automozioiko igorpenak

(1) inprimagailu, fotokopiagailu, drumak hartzen ditu

Zuzeneko alderdiak ezohiko egoeretan:

- o Eraikuntza eta eraispenerako hondakinak
- o Bolumen handiko hondakinak (altzariak...)

Zuzeneko alderdiak larrialdietan:

Igorpenak atmosferara	Larrialdia: leherketa
Hondakin arriskutsuak	Larrialdia: leherketa
Hondakin geldoak	Larrialdia: leherketa
Hondakin geldoak	Larrialdia: Sutea
Hondakin arriskutsuak	Larrialdia: Sutea
Sua itzaltzearen ondoriozko isurketak	Larrialdia: Sutea
Igorpenak atmosferara	Larrialdia: Sutea
Hondakin ez arriskutsuak	Larrialdia: uholdea
Uholdeak eragindako isurketak	Larrialdia: uholdea
Legionelosi-kutsadura	Larrialdia: Legionelosi
Igorpenak atmosferara	Larrialdia: gas hoztailearen ihesa
Hondakin arriskutsuak	Larrialdia: substantziak, hondakin arriskutsuak edo erregaiak isurtzea
Isurketak	Larrialdia: substantziak, hondakin arriskutsuak edo erregaiak isurtzea

Zeharkako alderdiak:

- o Hornitzaileek ingurumenarekiko daukaten jokabidea (mantentzea, garbiketa,...)
- o Hornitzaileek ingurumenarekiko daukaten jokabidea – kanpoko analisisien laborategia
- o Lehen Mailako Arretakoa ez den pertsonalak ingurumenarekiko daukan jokabidea.
- o Erabiltzaileek ingurumenarekiko daukaten jokabidea

3.2. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

LMAUetako kudeaketaren ingurumen-alderdiak behin identifikatu ondoren, sistemaren arduradunak ingurumen-alderdiak ebaluatzen ditu (**zuzenekoak zein zeharkakoak**) Ingurumen-Alderdien Ebaluazio-Taulen arabera, IKS-KP-12 prozedurari erantsitako agiria, ingurumenaren gain horietatik zeinek daukan **eragin garrantzitsuena** zehaztu eta berorren kontrola hobetzeko.

Ohiko eta ezohiko baldintzetako zuzeneko alderdien nahiz zeharkakoen ebaluazioa eginiko jardueretan bildutako informazioan dago oinarrituta, eta bi irizpide hartzen ditu kontuan (edo irizpide bakarra zenbait kasutan):

- a) Alderdiaren **magnitutea** (alderdiaren kuantifikazioa: kopurua, instalazioen funtzionamendu orduak, etab.).
- b) Alderdiaren **izaera** (legezko mugetara hurbiltzea, ingurumen-eragina,...).

Ebaluazio-irizpideetarako, a) (Magnitutea) eta b) (Izaera), balorazio-escala bat ezarri da (gutxienez 1, eta gehienez 3).

Faktore orokorraren balioa lortzeko, magnitutea bider izaera eragiketa egingo dugu. Ebaluazioaren balioa, aurreko atalaren arabera egina, gehienezko kalifikazioaren %40 (hots, 4 puntu edo gehiago) edo handiagoa bada, alderdia GARRANTZITSUtzat hartzen da eta lehenetsi egiten da hobekuntzarako helburuak esleitzerakoan.

Larrialdietako alderdien kasuan faktore orokorraren balioa lortzeko, irizpide hauek izango dira kontuan:

- o Larrialdia gertatzeko **probabilitatea** (larrialdia zenbat aldiz gertatu den abiapuntu hartuta).
- o Larrialdi bakoitzaren balizko eraginaren **larritasuna**.

Magnitudean eta Izaeran bezala, balorazio-escala bakarra ezarri da (gutxienez 1, gehienez 3)

Faktore orokorraren balioa lortzeko, probabilitatea bider larritasuna eragiketa egingo dugu; ebaluazioaren balioa gehieneko kalifikazioaren %40 (hots, 4 puntu edo gehiago) edo handiago bada, alderdia GARRANTZITSUtzat hartzen da eta lehenetsi egiten da hobekuntzarako helburuak esleitzerakoan.

FAKTORE OROKORRA (M x I) o (P x L)	GARRANTZIA-MAILA
FG < 4	Ez da garrantzitsua
FG ≥4	Garrantzitsua da

3.3. INGURUMEN-ALDERDI GARRANTZITSUAK

Ondoko taulan, 2008an Eskualde mailan identifikatutako ingurumen-alderdi garrantzitsuak azaltzen dira, 2007ko datuak oinarri dituztenak, betiere aurreko atalean azaldutako ebaluazio-metodologiarekin eta horiekin lotutako eraginekin bat etorritz.

Zentroei lotuta berriz: 2008ko uztailan, Egiaztapen prozesuaren emaitzaren ondorioz, ingurumen-alderdiak zentroz zentro identifikatzea egokitzen da jo zen, identifikazio horren emaitzak Ingurumenaren Adierazpenaren eranskinetako bakoitzaren 2.3. atalean jasotzen da.

BiEren ALDERDI GARRANTZITSUAK 2008 (2007ko datuak)		HORREKIN LOTUTAKO HELBURUA
DESKRIBAPENA	ERAGINA	
Inprimagailu/fotokopiagailu /drumaren toner-kontsumoa	Baliabide naturalak murriztea. Produktu horiek fabrikatzeko prozesuetako hondakinak, igorpenak eta hondakin-uren isurketak murriztea lortu da.	-
Garbiketako produktu arriskutsuen kontsumoa		-
Galdaretako gasaren kontsumoa	Baliabide naturalak murriztea. Igorpenak atmosferara.	BiEn berogailu-gasaren kontsumoa murriztea %3an.
RAEE (inprimagailuak, ordenagailuak, etab..)	Paisai-kalitatea murriztea hondakin pilaketaran ondorioz, energia kontsumoa berori kudeatzeko. Medioan gai arriskutsu aktiboak sartzea.	-
Eragindako zarata	Ingurumen kalitatearen murrizketa	-

Badira, aldi jakin bateko datuak falta izateagatik, ingurumen-alderdi garrantzitsuak hobekuntzarako helbururik gabekoak. Datuon bilketa selektiboa ez da egin modu sistematikoan eta, horrek zera dakar berekin: alderdiok benetan garrantzitsuak diren ezin ziurtatu ahal izatea, horixe da hain zuzen ere, garbiketako produktu arriskutsuen, RAEE (inprimagailuak, ordenagailuak, etab) eta eragindako zaraten kasua. Tonerraren kasua, Eskualdeak erabat kontrolatzen ez duen alderdia da, Erakunde Zentraleko Erosketarako Sailaren menpekoea baita eta beronekin adostu behar den alderdia delako.

Euren izaerak edota erakundearen baliabide murrizteak eraginda Ekintza Planari lotuta ez dauden ingurumen-alderdien kasuan, Operazio-Kontrolaren bitartez eragiten zaie eta BiEko ingurumen-alderdi guztietarako ezarritako jarraipena egiten zaie.

Hobekuntzarako helburuak jartzerakoan, une honetan Eskualde mailan garrantzitsutzat jo ez diren ingurumen-alderdi batzuk aintzat hartu dira, gerora izan daitezkeelakoan edota dagoeneko garrantzitsuak direlako **BiE** osatzen duten zentroetakoren batean eta, gainera, iraunkortasunean aurrera egiteko interesekotzat jotzen direlako.

4. XEDEAK ETA HELBURUAK. INGURUMEN KUDEAKETAKO PROGRAMAK (EKINTZA PLANAK)

1.3. eta 1.4. ataletan aipatu den legez, **BiE**n 24 zentro daude Bilbo (23) eta Alonsotegi (1) udalerrietan sakabanatuta. Zentroen artean desberdintasunak eta berezitasunak egon daitezkeen arren, hasieran eskualde mailako helburuak, xedeak eta ekintzak proposatu dira gehienbat; dena dela, ingurumen-alderdien identifikazioak baita alderdion ebaluazioa ere zentroz zentro egin da. Jakin badakigu ingurumen kudeaketa epe erdi/luzerako proiektua dena.

2008an, prozesua etengabe hobetzeko eta urte hasieran planteatutako helburuak erdiesteko aurreikusitako ekintzak abiarazi dira eta ekintza-planen emaitzak eta itxiera aztertu dira.

Jarraian, 2008rako planteaturiko ingurumenaren hobekuntzarako helburu, xede eta ekintzen betetzeari buruzko ebaluazioaren emaitzak erakusten dira.

* Adierazleetarako bezeroen hitzordu kopurua + 9. orrialdeko taularen arabera eskualdeko lanpostu-zerrenda

INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA
	Definizioa	2007	2008		
BiEn ur sanitarioen kontsumoa %2 murriztea. EZ GARRANTZITSUA	ur kontsumoa m ³ / hitzorduak erabiltzaileko	0,0067 m ³ /erabiltzaileko	0,0055 m ³ /erabiltzaileko	Ur beroaren kontsumoa erregulatzea	Lortuta
				Komun publikoetatik ur beroa kentzea	
				Zentroetako zisternetako eta konketetako ura erregulatu.	

Helburuaren betetze-maila: %100. Lortzea espero zen adierazlearen balioa 0,0065 m³/erabiltzaileko. Lortutako adierazlearen balioa 0,0055 m³/erabiltzaileko, horrek %17,91ko murrizketa dakar berekin.

Xede/ ekintzen betetze-maila: Planifikatutako ekintzen %100 bete dira Eskualdea osatzen duten zentroetan.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu hori betetzeak baliabide naturalen kontsumoa murriztea ekarri du.

INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA
	Definizioa	2007	2008		
BiEn argindarraren kontsumoa %0,3 murriztea EZ GARRANTZITSUA	Argindarraren kontsumoa kwh/hitzordua k erabiltzaileko	0,8573 kwh / erabiltzaileko	0,7998 kwh/erabiltzaileko	Argindarraren kontsumoaren erregulazioaren azterketa osasun zentro guztietan	Lortuta
				Argindarraren kontsumoaren erregulazioa.	
				Erretzen joan ahala, bonbilla normalak kontsumo txikikoengatik ordezkatu.	
				Argi-erregulatzailak instalatu komunetan eta intereseko beste toki batzuetan.	

Helburuaren betetze-maila: %100. Lortzea espero zen adierazlearen balioa 0,7998 kwh/erabiltzaileko, horrek kontsumoaren %6,71ko murrizketa dakar.

Xede/ ekintzen betetze-maila: Planifikatutako lehenengo 3 ekintzak Eskualdeko zentro guztietan burutu dira, hala ere argi-erregulatzailerak arian-arian ezarriko dira kostu ekonomikoa dela eta. 2008an Zurbarango OZan eta Eskualdeko administrazioan egin da.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu hori betetzeak elektrizitatea sortzeko baliabide naturalen kontsumoa murriztea ekarri du.

INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK/EKINTZAK	EGOERA
	Definizioa	2007	2008		
BiEn berogailu-gasaren kontsumoa %3 murriztea GARRANTZITSUA	Berogailu kwh / hitzorduak erabiltzaileko kontsumoa	0,8925 kwh / erabiltzaileko	0,8211 kwh / erabiltzaileko	Leihoak aldatzeko azterketa egin	Lortuta
				Boluetan eta Altamiran erregulatzailerak jarri.	
				Gas/gasolioaren kontsumoa erregulatu ordutegia murriztu eta zentroaren berezko beharizanei egokitzuz.	

Helburuaren betetze-maila: %100. Lortzea espero zen adierazlearen balioa 0,8657 kwh/erabiltzaileko. Lortutako adierazlearen balioa 0,8211 kwh/erabiltzaileko, horrek kontsumoaren %8ko murrizketa dakar.

Xede/ ekintzen betetze-maila: Planifikatutako ekintzak burutu dira. Eskualdeak daukan aurrekontua dela eta, leihoak aldatzea ez da burutu, arian-arian aldatuko dira.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Berogailu gasaren kontsumoa murrizteko helburuaren bitartez, gasa sortzeko baliabide naturalak murriztea lortu da.

INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK/EKINTZAK	EGOERA
	Definición	2007	2008		
BiEn berogailuko gasolioaren kontsumoa %3 murriztea EZ GARRANTZITSUA	Gasoi m ³ /erabiltzaileko kontsumoa	0,0000088 m ³ /erabiltzaileko	0,0000098 m ³ /erabiltzaileko	Leihoak aldatzeko azterketa	Ez da lortu
				Boluetan eta Altamiran erregulatzailerak instalatu.	
				Gas/ gasolioaren kontsumoa erregulatu ordutegia murriztu eta zentroetako berezko beharizanei egokitzuz.	

Helburuaren betetze-maila: %0. Lortzea espero zen adierazlearen balioa 0,00000853 m³/erabiltzaileko. Lortutako adierazlearen balioa 0,0000098 m³/erabiltzaileko, horrek %11,36ko kontsumo-igoera dakar.

Xede/ekintzen betetze-maila: Planifikatutako ekintzak burutu egin dira. Eskualdeak daukan aurrekontua dela eta leihoak ez dira aldatu, arian-arian egingo da.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Ez da posible izan.

INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA
	Definizioa	2007	2008		
BiEn pilen kontsumoa %1 murriztu EZ GARRANTZITSUA	Pilen kontsumoa kg / hitzorduak erabiltzaile ko	0,00009 kg / erabiltzaile ko	0,00012 kg / erabiltzaile ko	Bateria kargagailuak erabiltzeko bideragarritasun-azterketa.	Ez da lortu
				Pilak kargatzeko pilengatik ordezkatzeta.	
				Zentroak bateria kargagailuz hornitu.	

Helburuaren betetze-maila: %0. Lortzea espero zen adierazlearen balioa 0,000089 kg/erabiltzaileko. Lortutako adierazlearen balioa 0,00012 kg / erabiltzaileko, horrek kontsumoa %33,33 hasi dela esan nahi du.

Xede/ekintzen betetze-maila: Planifikatutako ekintzak burutu egin dira. Bateria kargagailuen bideragarritasuna dela eta, Euskalman enpresako zerbitzu-hornitzailearekin hitz egin da. Berorrek kargatzeko bateriei eta pilei buruzko txostena bidali digu. Aipatu txostena intranetean (Garbingurun) jarri da. Gazteleku OZko 2 kontsultatan pilak eta bateriak kargatzekoak direnengatik aldatzeko froga egiten ari gara eta emaitza pozgarria izan da. Zazpi Kaleetako OZan era horretako pilak erabili ohi dira eta ez dute arazorik izan. Alderdi hau gainontzeko zentroetan ere kontrolatzen ahaleginduko gara.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Ez da posible izan. Merkurio-aparatuak digitalengatik ordeztzen hasi gara, horrek pilen kontsumoaren gorakada eragin du.

5. INGURUMENAREN GAINEKO JOKABIDEA

5.1 INGURUMEN-ALDERDIEN KUDEAKETA


LMAUek ingurumenari lotuta daukaten jokabidearen jarraipena egiteko, **BiE**ren ingurumen-alderdi nagusiekin zerikusia daukaten zenbait jarraipen-adierazle ezarri dira. Jarraian, 2006, 2007 eta 2008ko adierazle batzuen, garrantzitsuak izan zein ez, datu kuantitatiboak ematen dira. Eranskinetan, 4.1. atalean, BiE osatzen duten zentro bakoitzeko datuak ematen dira.

** Adierazleetan baliatutako zentroetako hitzordu/erabiltzaileko kopurua **BiE**ko Kontabilitate Sailak eman du.*

KONTSUMOAK

- **Uraren kontsumoa**


2008an, burutu diren ekintza espezifikoei (helburuen taulan definituak) esker, uraren kontsumoa murrizteko programatuak, 2007an 19.895 m³ kontsumituzetik 18.484 m³ kontsumitzera igaro dira 2008an. Horrek, m³./ hitzordu–kopurua erabiltzaileko adierazlea aintzat hartuta, %17,91eko murrizketa dakar. Datuak Uren Partzuergoak emandako fakturretatik atera dira.



• Argindarraren kontsumoa


BiEko zentroetako eta Eskualdeko Zuzendaritzako bulegoetako argindarraren guztizko kontsumoa 2007an 2.540.570 kwh-koa izatetik 2.704.307,450 Kwh-koa izatera igaro da 2.008an, hala ere, kwh/ hitzordu kopurua erabiltzaileko adierazlea kontuan hartuta, %6,71ko murrizketa lortu da. Ildo horretan, gure profesionalen jabeazte-maila handitzen ari dela esan dezakegu. Horretarako, ingurumenaren arloko jardun onerako jarraibideak zabaldu dira. Aldi berean, kontsumoa murrizteko egiturazko ekintzak burutu dira hala nola, presentziazko sentsoreak jartzea jende gutxi dabilen tokietan (pertsonalaren aldagelak, biltegia, etab.). Ezarri den beste neurri bat luminariak argindarraren kontsumo txikiko beste batzuekin aldatzea izan da. Hornitzaileak emandako fakturetatik lortu dira datuak.

Honako grafikoa daukagu kwh/ hitzordu kopurua erabiltzaileko adierazlerako:



• Galdaretako gasaren kontsumoa (GARRANTZITSUA)


2008an galdaretako gasaren kontsumoa %8 murriztu da kwh/ hitzordu kopurua erabiltzaileko adierazlea kontuan hartuta. 2007an 2.644.826 kwh kontsumituzetik 2008an 2.776.306 kwh kontsumitzera igaro garen arren, kontsumo horrek negu batetik bestera bizi dugun klimatologia aldaketarekin zerikusi zuzena dauka. Datuak hornitzaileek emandako fakturetatik atera dira.



- **Galdaretako gasolioaren kontsumoa**

2008an galderetako gasolioaren kontsumoak %11,36 egin du gora m³/ hitzordu kopurua erabiltzaileko adierazlea kontuan hartuta. 2007an 26,126 m³ kontsumituzetik 2008an 33,106 m³ kontsumitzera igaro gara. Kontsumo horrek negu batetik bestera bizi dugun klimatologia aldaketarekin zerikusi zuzena dauka. Datuak hornitzaileek emandako fakturretatik atera dira.


Gasolioaren kontsumoa/ hitzordu kopurua erabiltzaileko *1.000



- **Paperaren kontsumoa**


2008an, zentroetan ezarri diren aplikazio informatiko berriei esker, 2007an 19.551,48 kg kontsumituzetik 2008an 29.338,375 kg kontsumitzera pasatu gara, horrek kg/ hitzordu kopurua erabiltzaileko adierazlea aintzat hartuta kontsumoaren %31,51eko gorakada dakar. Datuak BiEko Hornidura Sailak emandakoak dira.

Paper kg/ hitzordu kopurua erabiltzaileko adierazlearen grafikoa daukazue segidan.



- **Inprimagailu / fotokopiagailu / drumaren toner-kontsumoa (GARRANTZITSUA)**


2008an erabiltzaileko %10 murriztu da kontsumoa, nahiz eta 2007an 1.482,936 kg kontsumituzetik 2008an 1.535,088 kg kontsumitzera igaro (toner kontsumoaren adierazlea: kg / hitzordu kopurua erabiltzaileko). Datuak BiEko Hornidura Sailak emandakoak dira.



- **Pila eta baterien kontsumoa**

Tonerrarekin ez bezala, pila eta baterien kontsumoak erabiltzaileko nabarmen egin du gora (%33,33) BiEko osasun zentroetan, 2007n 258,888 kg kontsumituzetik 2008an 398,744 kg kontsumitzera pasatuz. Baliteke merkurio-aparatuak aparatu digitalengatik ordezkatu izana izatea kausa (pilen kontsumoaren adierazlea: kg/ hitzordu kopurua erabiltzaileko). Langileak kargatzeko pilak eta bateriak balia ditzaten kontzientziatzen ahalegintzen ari gara.

Datuak BiEko Hornidura Sailak emandakoak dira.



- **Garbiketa produktu arriskutsuen kontsumoa (GARRANTZITSUA)**


2007an ez zen kontrolatzen produktu-mota honen kontsumoa, hori dela eta erakundearen alderdi garrantzitsu gisa ebaluatu zen. Edozelan ere, BiEn erosten den garbiketa produktu arriskutsu bakarra desinfektatzaile bat da (Instrunet entzimatikoa) eta beronen ontziak behar bezala kudeatzen dira.

HONDAKINAK

- **Hondakin arriskutsuak**

Hondakin arriskutsu zenbait erabiltzaileen osasun-beharrizanengatik sortuak dira, horien artean esaterako, ebakitzaleak/ zorrotzak eta zitostatikoak, erakundeak horiengan eragiteko zailtasuna antzematen du, osasun jarduera behar bezala bilaka dadin lehenesten baitu.

Bestalde, zentroetan Puntu Berdea deritzona ezarri da. Erabiltzaileek erradiografiak, pilak eta iraungitako botikak utz ditzakete bertan. Hondakin horien kantitateak ez du gora egin oro har, dena dela, hondakin horiek gehiago kontsumitzeak ez dakar berekin zentroaren ingurumenarekiko jokabide okerragoa. Alderantziz, erakunde honen zuzendaritzak uste du erabiltzaileek hondakin horiek gehiago biltzeak beroien kudeaketa egokia dakarrela. Hondakinok baimendutako kudeatzailearen bitartez kudeatzen dira.



Datuok hondakinak kudeatzen dituzten agenteek eman dituzte.

- **Erradiografia hondakinak**


BiEko Puntu Berdeetan uzten diren erradiografiak gehien batean zentroetako erabiltzaileek ekarritakoak dira eta behar bezala kudeatzen dira baimendutako kudeatzailearen bitartez. 2007an erradiografia 2.196,30 kg jaso ziren zentroetako Puntu Berdeetan eta 2008an 3.461,30 kg jaso dira.

Hondakinak Eraberritzeko enpresa kudeatzaileak emandako datuak.

- **Iraungitako botiken hondakinak**

BiEk kendutako botika iraungiak baimendutako agente baten bidez behar bezala kudeatzen dira. 2007an, hobekuntzarako neurri gisa, puntu berdeak jarri ziren zentro guztietan, erabiltzaileek eurek etxeetan sortutako hondakin arriskutsuak biltzeko. Neurri horren helburua horrelako hondakin arriskutsuen kudeaketa egokia bermatzea da; izan ere, askotan zaborretan uzten dira herriarren ezjakintasunagatik. Jasotako iraungitako botiken kopuruak gora egin du 2007an 1.307,76 kg biltzetik 2008an 3.276 kg biltzera (iraungitako botiken adierazlea: kg / hitzordu kopurua erabiltzaileko) horrek zentroetan jarritako puntu berdeen erabilera egokia dela frogatzen du eta puntuok IKSaren alderdi positibo gisa hartzeko bide ematen digu.

Datuak Eliceron enpresa kudeatzaileak emandako kontrolerako eta jarraipenerako dokumentuetatik atera dira.



- **Pilak eta bateriak hondakinak**

2007an zentroetako Puntu Berdeetan pila eta baterien 1.800 kg bildu ziren eta 2008an 1.749,7 kg bildu dira, guztiak baimendutako kudeatzaileak eraman ditu (udal zerbitzua).

- **RAEE (inprimagailuak, ordenagailuak...) (GARRANTZITSUA)**

2007an ez zen kontrolatzen zentro guztietan hondakin mota horren kantitatea, hori dela eta erakundearen alderdi garrantzitsutzat hartu zen. 2008an hondakin horiek kontrolatzeko ahalegina egin da, guztira sortutako 23 kg kuantifikatu dira eta baimendutako kudeatzaile baten eskutik kudeatu dira. Hortaz, 2009an hondakinon jarraipena egitea izango da lehentasunezko helburua.

- **Lanpara fluoreszenteak**

Ez da egiaztatu ordeztutako eta baztertutako lanparen kopurua, hortaz, alderdi garrantzitsu gisa ebaluatu da. Izan ere, erretiratutako lanparak hornitzaileak berak eramaten ditu.

- **Garbiketa ontzi arriskutsuak**

2007an ez zen kontrolatzen produktu horietan kontsumitutako kantitatea. Horregatik alderdi garrantzitsu gisa ebaluatu zen. Kontrata batek sortutako alderdia denez gero, horrekiko kontrola mugatua da. Eginkizun horretarako kontrataturiko enpresak, ordea, Ingurumena Kudeatzeko Sistema dauka ziurtatuta. Hori dela eta, ingurumenaren kudeaketa etengabe hobetzeko prozesuan murgilduta dago.

Enpresak berak emandako datuen arabera 2008ko kuantifikazioa 27,425 Kg-koa izan da.


- **Hondakin ez arriskutsuak**

Eskualdeko zentroetan sortutako hondakin ez arriskutsuak, batetik, hiri-hondakin berezituak biltzen dituzte: tinta kartutxoak eta tonerra, papera, kartoia, plastikozko eta metalezko ontziak, hondakin higienikoak eta, bestetik, hiri-hondakin bereizi gabeak edo zarama orokorra deritzenak.

Sortutako hondakin ez arriskutsuen kantitatea 2007an 109.000,36 kg-koa izatetik 2008an 131.755,29 kg-koa izatera pasatu da, horrek %5,98ko gorakada dakar kontuan izanda adierazlea: bereizi gabeko hiri-hondakin kg + bereizitako hiri-hondakin kg/hitzordu kopurua erabiltzaileko.

2008an aparatu erradiologikoak digitalekin ordezkatu dira, horrek datorren ekitaldian erradiografia hondakinak hondakin ez arriskutsu modura sailkatzea ekarriko du (Eusko Jaurlaritzako Hondakin Arriskutsuen Zerbitzuari egindako kontsulta).

Hondakin ez arriskutsuen datuak garbiketarako kontrataturiko enpresaren lankidetzarekin bildu dira.



- **Hondakin higienikoak**

Hondakin higienikoak osasun zentroetako komunetan sortzen direnez gero, erakundeak alde horretatik jarduteko marjina txikia dauka. Hala eta guzti zere, hondakinak kontrolatzen dira eta horretarako baimendutako agente baten bidez kudeatzen dira. 2007an hondakin-mota honetako 1.500,2 kg bildu ziren eta 2008an, berriz, 4.556 kg bildu dira. Alde horiek Ingurumenerako Kudeaketa Sistema helduz joan ahala, datuak erregistratzeko hobekuntzak eragindakoak izan daitezke.

ZARATA

- **Eragindako zarata (GARRANTZITSUA)**

BiEk buruturiko jardueretan ez dela zaratarik sortzen irizten zaio. Horregatik, aurreko ekitaldietan ez da kanpoko zarataren neurketarik egin, hori dela eta erakundearen alderdi garrantzitsu gisa ebaluatu zen.

2008an neurketak egin dira, batez besteko baloreak 46 dezibelekoak izanik.

ISURKETAK

- **Ur sanitarioen isurketak**

Kontsumitutako ur-kantitatearen parekoa da (ikusi ur-kontsumoa)

Erakundeak LMAUen kudeaketan daukan ingurumenarekiko jokabideari buruzko adierazle zenbaiten ondorio orokorrak

BiEk uste du, **IKS** ezarri berria den arren; adierazleen emaitzak ikusita, erakundearen ingurumen-alderdien jarraipenean bilakaera positiboa antzematen dela eta hobetzeko ahaleaginean jarraituko du.

5.2. INGURUMENARI BURUZKO LEGERIAREN BETETZE-MAILA

Erakundeak baimenak ditu, erakunde eskudunak aplikatu edo salbuetsi beharrekoak, berorren betetze-maila aldian behin identifikatzeko eta ebaluatzeko erregistroa ezarri duelarik.

Horrez gain legeria eguneratzeko zerbitzua azpikontratatu du, zerbitzu horren bitartez gure sektoreari lotutako legeriari buruzko (xedapen berriak, aldaketak, etab) jakinarazpenak jasotzen ditugu. Horrek lege-iritziak kontuan hartuta, gure enpresak ingurumenari dagokion jokabidearen jarraipen egokia egiteko aukera ematen digu.

Ondoren ingurumenari lotutako lege-eskakizunak aipatzen dira:

- **Jarduera lizentzia**

2008ko maiatzaren 20an Bilboko Udalak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari jakinarazi zion Bilbo Eskualdeko zentroetan garatzen den jarduera, osasun egoeran titulartasun publikoko ekipamenduaren erabileraz diharduela, horrela bada, ez daukatela irekitze-lizentziaren derrigortasunik honako araudian jasotzen denez: Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren 5.2.22. artikuluan, Hirigintza Lizentziei eta beroien izapidetzeari buruzko Ordenantzaren 105. artikuluan eta 2/2006 Legearen, Euskadiko lurzoruari eta hirigintzari buruzkoaren, 207. artikuluan.

2008ko uztailaren 3an, Alonsotegiko Udalak Alonsotegiko Osasun Zentrora Jarduera-lizentziaren onarpena eman zuen..

➤ Hondakin sanitarioak

76/2002 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzeko dena, betez 2008ko urriaren 28an Osasun Publikoko zuzendariaren Ebazpenaren kopia jaso zen, Bilbo Eskualdeko Osasun Zentroetako Hondakin Sanitarioak Kudeatzeko Plana onartzen duena.

➤ Hondakin arriskutsuak

2008ko urriaren 9an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuordearen Ebazpena ematen da non Bilbo Eskualdeko zentro guztiak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan inskribatuta gelditzen diren.

➤ Hondakin ez arriskutsuak

2008ko ekainaren 30ean Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak Industria Hondakin geldoen Erregistroan Bilbo Eskualdea osatzen duten zentroak bertan inskribatzea baimentzen du.

➤ Isurketak

2008ko irailaren 25ean Uren Partzuergoak erabakitzen du kolektorera isurpen-baimena ematea baita B motako erabiltzaile gisa sailkatzea ere.

➤ Igorpenak

34/2007 Legea, airearen kalitatea eta atmosfera babestekoa, betearaziz, gure zentroetako instalazioen ikuskarpenak eta mantentze-lanak egiten dira, nahiz eta gure guneak konfort instalazioen baitakoak izan (berogailua eta aire egokitua), erreferentziazko legeriaren aplikazio-eremutik kanpokoak. Edozelan ere, gure galdarek Eraikinetan Instalazio Termikoen Legeriaren (RITE) lege eskakizunak betetzen dituzte baita indarrean dauzkaten Jarraibide Tekniko Osagarriak ere.

➤ Legionelosia zehaztapena

865/2003 Errege Dekretua, uztailaren 4koa, legionelosiari aurrea hartu eta hura kontrolatzeko higie eta osasun alorreko irizpideak ezartzen dituena. Instalazioaren funtzionamendu egokia bermatu duten aldi behingo mantentze-programak egin, era berean, uraren kalitate mikrobiologiko eta fisiko-kimikoaren kontrola ere egingo da osasun publikorako arriskua ekiditeko.

Bestalde, BiEk ez du inongo isunik jaso ingurumenari lotutako arau-hausterengatik.

6. INGURUMENARI BURUZKO BESTELAKO INFORMAZIO INTERESGARRIA

6.1 ERAKUNDEAREN BESTE EREMU BATZUETAN INGURUMENAREKIKO JOKABIDEA

BiEk konpromiso irmoa dauka gizarte eta ingurumeneko garapen iraunkorreko proiektuez jabetasunarekin eta horiek abiaraztearekin, eta erakundearen beste eremu batzuetan lan egiten du, pertsonalarekin zein oro har herritarrekin. Horietako zenbait jarraian deskribatuko dira:

- **BiE**ko ingurumen-kudeatzaileak trebatzeko ikastaroak

- Bilbo Eskualdeko Hobekuntza Taldeen I. Jardunaldiak: 2008ko irailean Ingurumenaren Kudeaketarako Koordinadorak Bilbo Eskualdeko esperientziaren aurkezpena egin zuen **BiEko** eta Osakidetzako beste erakunde batzuetako pertsonen aurrean.
- Kontratetako pertsonalarentzako trebakuntza-ikastaroak (garbiketako enpresa)
- Informazio-buletin elektronikoak profesionalentzat.
- Eskualdeko intraneteko iradokizunetarako helbidea, erreferentea **BiEko** eta Osakidetzako gainontzeko erakundeetako pertsonalarentzat.



- Gure zentroetan lan egiten duten, bertakoak nahiz beste erakunde batekoak izan, langile guztiei banatutako triptikoak egin dira, hondakinen kudeaketari buruzko informazio orokorra biltzen dutenak.

- Hondakin-kudeatzaileak diren enpresetara prestakuntza-bisita: **BiE** bere jardunean sortzen diren hondakin sanitarioak behar bezala kudeatzearen garrantziaz jabetuta dago, ez bakarrik barne-kudeaketari dagokionez baizik eta kanpokoari dagokionez ere. Hortik bada, sortutako hondakinen kanpoko jarraipena egiteko interesa. Horregatik, 2008ko azaroan **BiEko** ingurumeneko arduradun guztiak hondakin sanitarioak biltzen dituen enpresa adjudikaziodunaren instalazioak bisitatzeraz joan ziren: Elirecon S.A. Jarduera horrek **BiEko** beharrianak hornitzailearekin, kasu honetan hondakinen kudeatzailearekin, lerrokatzea ekarri du, alde bientzat mesedegarriak diren estrategiak ezarriz. Esate baterako, etxez etxeko zerbitzuetarako edukiontzi berezituen azterketa, lege-eskakizunak betez **BiEko** beharrianak beteko dituen. Gainera, profesionalen gogobetetasuna hobetzen du **BiE**en sortutako hondakinen kanpoko jarraipena ahalbidetzen baitu.



- Zentro guztietako sarreretan, identifikazio-kartelekin seinaleztatuak, **Puntu Berdeak** daude. Erradiografiak, pilak eta botikak biltzeko eta bereizteko edukiontzi bereziak dituzte. Zentro bakoitzeko hallean daude kokatuta, eta **Ingurumen-Kudeaketarako trakzio-ibilgailu aktibo** gisa jarduten dute gure profesionalentzat eta herritarrentzat orohar. **Puntu Berde** horiek papera, tonerra eta bestelako hondakinak bereizten diren tokiekin osatzen dira. Era horretan, hondakinak gehitzea eta ondoren tratatzea edo birziklatzea (hala badagokie) sustatzen da.

Zera nabarmendu behar da, 2008an puntu horien trakzio-ondorioetako bat beste materia batzuetako hondakinen bilketaren gorakada da. Zentzu horretan, zentroetako sarreretan azken bi urteotan emandako aldaketak adierazgarriak izan dira. Orain arte osasun zerbitzuetarako sarbide hutsak ziren. Helburua ahalik eta garbien eta aseptikoen mantentzea zen. Gaur egun, **ingurumena eraberritzeko gune** bilakatu direna esan dezakegu, bai gure zentroetara datozen herritarrentzat baita bertan lan egiten duten profesionalentzat ere.

- 2006 eta 2007ko **BiEko** Erantzukizun Sozial Korporatiboko memoriek, kanpoko erakundeak eginak eta egiaztatuak, A+ sailkapena lortu dute.

PUNTU BERDEAK.-



6.2. HERRITARRENTZAKO KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

BiEn uste dugu ingurumenari buruzko informazioa funtsezkoa dela herritarren jokabidea hobetzeko. Horie dela eta, hainbat komunikabide bereiz ditzakegu:

- Erabiltzaileen eskura jartzea bezeroak atenditzeko eremuetan hondakinen kudeaketarekin lotutako informazio orokorreko triptikoak eta beste kartel batzuk (**Puntu Berdeak**).
- Begirada Batez-erabiltzaileak buletineko informazioa (Informazio orokorreko buletina)
- Iradokizun-postontzia eskualdeko zentro guztietan.
- Bilerak auzotarren elkartean.
- IAB – IHOBEko Ingurumen Adierazleen Bankua datu-basea



6.3. HORNITZAILEEK INGURUMENAREKIKO DAUKATEN JOKABIDEA

2008an Erakunde Zentraleko Kontratazio Zuzendariordetzan zenbait gestio egin dira erakundeko Kontratazio-pleguetan ingurumen-eskakizunak sartzeko helburuarekin.

Bere aldetik **BiEk** galdetegi bat baliatuz, hornitzaileak eta azpikontratak ebaluatzen ditu ingurumenarekiko daukaten jokabideari lotuta.

Eskaintzak baloratzerakoan, ingurumenaren gaineko honako alderdiak hartzen dira kontuan:

- Hondakinen kudeaketa
- IHOBEren Erosketa eta Kontratazio Publikoko Gidaliburua
- Material biodegradableak erabiltzea

- Energia eraginkortasunez erabiltzea
- IKS ezartzea

Zentzu horretan 2008an garbiketa zerbitzuaren hornitzaileek egindako eskaintzek irizpide horiek jaso dituzte. Horrela bada, papera biltzea eskaini dute, orain arte zeregin hori Eskualdeak berak egin zuelarik beste hornitzaile baten bitartez.

6.4. INGURUMEN-KUDEAKETARAKO INBERTSIOAK

2006ko azken hiruhilekoan, zazpi zentrotako erabilera mugatuko zonaldeetan argiztapen-sarearen beharrari buruzko azterlan bat egin zen: San Inazio, Etxaniz Suhiltzailea, Zazpi Kaleak, Abusu, Santutxu, Sagarminaga, San Adrian. Horren ondorio gisa, argindarra murriztea ezarri zen 2007rako hobekuntzako helburu moduan. 2008an, eraberritze-lanak egiten direnean, argia detektatu eta tenporizatze ekipoa ezartzen jarraitu da.

Hauexek dira ingurumenaren inguruko bestelako inbertsioak:

URTEA	EKINTZA	ZENTROA	ERAGINA	INBERTSIOA
2007-08	Erakunde Zentralarekin lankidetzan inprimagailuak aldatzea (500 baino gehiago)	Zentro guztietan	Paper eta toner kontsumoaren murrizketa	Erakunde Zentrala
2008	Bi aldeetatik fotokopiatzen duten fotokopiagailuak eskuratzea 5 zentrotarako.	Deustu (2), Gazteleku, Basurtu, Arangoiti y Etxaniz Suhiltzailea.	Paper kontsumoaren murrizketa	10.405€
2008	Ingurumen-kudeatzaileen prestakuntza	Zentro guztietan	Ingurumenari lotutako kulturaren hazkundera erakundean	5.000€ baino gehiago

6.5. INGURUMENARI LOTUTAKO GERTAERAK

2008ko ekainaren 2ko uholde-uren eraginez Alonsotegi Osasun Zentroko garajea urez bete zen, behin egoera kontrolatu ondoren, hondakinak garbitu eta kendu egin ziren. Gertaera puntuala izan da.

Alonsotegiko Udalerriko uholdeez gain ez da aipatzeko moduko beste gertaerarik eman.

6.6. 2009KO ERRONKAK

BiEn uste dugu **berrikuntza etorkizuneko erronka dela**, egungo eta hurrengo gizartearentzako **iraunkortasunaren eta ingurumenarekiko errespetuaren** gaineko irizpide argiak kontuan izanda. Ildo horretan, hobekuntzarako proiektuak planteatzen jarraitzen dugu. Jakin badakigun arren proiektu guztiak ezin egin daitezkeela urte bakarrean, zentro ugari dagoelako eta horietako bakoitzeko balizko jabearazte- eta ezartze-mailen kopurua handia delako, 2008rako erronka-multzoa eskaintzen da:

- o Ingurumenari lotutako zeregina hobetzea pertsonala eta erabiltzaileak sentsibilizatuz.
- o Pilen kontsumoa murriztea
- o Plastiko poltsen kontsumoa murrizteko ingurumen-irizpideak ezartzea.
- o Hondakinak bereizteko era hobetzea



- o Argindarraren kontsumoa murriztea
- o Berokuntzako gasaren kontsumoa murriztea

Euretako bakoitzaren dimentsioa edo zabalkundea Ingurumen Adierazpenaren eranskinetan aurki daitezke.

2009ko Eskualdeko erronka bat Larreagaburu auzoan osasun zentro berri bat irekitzea da. Horrela bertako biztanleek (12.000 inguru) ez dute inguruko auzuneetako zentroetara joan beharrik izango.

Profesionalei eta herritarrei galdetegi bat egiteko asmoa dago. Helburua bertan jasotzen den informazioarekin ingurumenarekiko gure jokabidea hobetzen jarraitzea da baita berorrekiko gizarte-kontzientziazio lana egitea ere.

Bilbo Eskualdean 850 pertsona baino gehiagok egiten dute lan. Osakidetza -Erakundearen baitakoak izateagatik, 26.000 profesional baino gehiago biltzen dituen, mugikortasun maila handia daukate. Hori dela eta ingurumenaren kudeaketarako arduradunentzako ikastaroak egiteko asmoa dago.

Ingurumenari lotutako ezagupenak hobetu eta zabaltzeko asmoarekin IHOBE, EEE eta beste erakunde batzuk antolatutako ikastaroetara joaten saiatuko gara.

7. EGIAZTATZEA ETA BALIOZTATZEA

Adierazpen honen ingurumen-egiaztatzailea Normalizazio eta Egiaztapeneko Espainiako Erakundea izan da (AENOR). Egiaztapenerako Nazio Erakundeak egiaztatua (ENAC) ES-V-0001 zenbakiarekin.

Ingurumenari buruzko Adierazpena herritarren eskura jarriko da formatu inprimatuan Osakidetzako **BiE** Eskualdeko osasun zentroetan, eta doan emango da, aurretik eskaera eginda.

2010. urterako ezarri da ingurumenari buruzko hurrengo adierazpena egiteko epea.

